

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Getxoko (Bizkaia) «Toys» Haur Eskola pribatuaren baimena aldatzeko dena.@@@

Getxoko (Bizkaia) «Toys» Haur Eskola pribatuaren erakunde titularren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non eskatzen baita Haur Hezkuntzako Lehen Zikloari dagokion baimena aldatzeko, zerotik urtebetera arteko haurrentzako unitate bat urtebetetik bira arteko haurrentzako unitate bihurtu ahal izateko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek izan dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharrekogutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek EuskalAutonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) (215/2004 Dekretua, 2004ko azaroaren 19ko EHAA); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- 2011-2012 ikasturtetik aurrera, jarraian zehazten den ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen da, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan:

Kode zenbakia: 48017083.

Izen espezifikoa: «Toys».

Titularra: Territorio Infantil 2008, S.L.

Helbidea: Kasune 6.

Udalerrria: Getxo.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena: urtebetetik beherako haurrentzako unitate bat urtebetetik bi urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzea.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 6 unitate. Edukiera:
- 2 unitate, urtebetetik beherako ikasleentzat; 8 ikaspostu, unitateko.
- 3 unitate, urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat; 13 ikaspostu, unitateko.
- unitate 1, bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; 18 ikaspostu.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntza deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.